

- Kiniela bakoitzak 15 euroko prezioa izango du.
- Guk sortutako lehen multzotik 2 txirrindulari aukeratu beharko dira, bigarren eta hirugarren multzo bakoitzetik 3 txirrindulari.
- Beste 4 txirrindulari aukeratu beharko dira (multzoan agertzen ez direnak).
- Partaide bakoitzak 12 txirrindulariz osatuko du tropela. Ezinbestekoa da txirrindularien izen eta abizena argi idaztea.
- Kiniela bakoitzari izen bat jarri beharko zaio. Kiniela bat baino gehiago egiten bada, kiniela guztiek izen desberdina izan beharko dute.
- Ordezko txirrindulari bat ere aukeratu beharko da, norbait irten gabe gelditzen bada, hark ordezkatuko du.
- Espainiako Itzulia etapa guztiak lehiatu aurretik amaitzen bada, momentu horretako sailkapena hartuko da kontuan.
- Puntuak banatzerako orduan, sailkapen ofiziala hartuko da kontuan, Espainiako Itzuliko web orrian agertzen dena.
- Txirrindulariak itzulia bertan behera uzten badu edo kanporatua izaten bada, ordurarte bildutako puntuak kontuan hartuko dira.
- Parta hartzea abuztuaren 17an, larunbata, arratsaldeko 16:23etan itxiko da.
- Irabazleek puntu kopuru bera lortzen badute, dirua zati berdinetan banatuko zaie.
- Kinielak betetzeko bi modu daude:
 - Mendateporra.com web orrian inprimakia betez.
 - 621 066 140 zenbakira whatsapp bidaliz, tropeltxoa osatuko duten txirrindularien zerrenda adieraziz, baita taldearen izena ere.
- Ordainketa egiteko bi modu daude:
 - Bizum bidez, **621 066 140** zenbakira.
 - Transferentzia bidez, openbank kontuko **ES8400730100520824306694** zenbakira.
 - Bietan ezinbestekoa izango da kontzeptu bezala taldearen izena jartzea.

PUNTUAZIO SISTEMA

ETAPAKOA						
1	2	3	4	5	6	7
50 puntu	40 puntu	30 puntu	20 puntu	15 puntu	10 puntu	5 puntu

NAGUSIKOA											
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
250 puntu	200 puntu	150 puntu	120 puntu	100 puntu	80 puntu	70 puntu	60 puntu	50 puntu	40 puntu	30 puntu	20 puntu
ERREGULARTASUNA			100 puntu	MENDIA			100 puntu	GAZTEA			100 puntu

